


NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

EUSKAL TXISTULARIA ARAGOI'EN



Santa Orosia'ren ibillaldia. (AIDA ARGAKZIA).



ARAGOI'ko Txistularia. (AIDA ARGAKZIA).

Ateraldi ontan gauza jakin-garriak ikusi genituen. Gure gosea ondo kendu genuen. Zerbaiten bila genituen, ueste baiho ederrage ta borobilla goa zan egia; euskal txistua bizirik oraindik Aragoi'en.

Euskara galdu zala ba genekin, bainien txistularien bat arkitzea etzitzidan ain zaila iduritzen; noizbait mendi bizkarren batean arkitze a itzaro nuen, R. I. E. F. al-dizkariaren bilduma eskue-tan nuela, orain dala 50 urteko lan batean, irakurri nuen, nola ingles batek orain dala eun urte Aragoi'en erositako txistu bat British Museum Londres-en zegoen. Ori jakinta, zerbait billatzeko, gero ta itxaropena gelago nuen. Asi nintzan bila, Noiz-beinka Aragoi—ko mendi lepotaraño urbitzen nintzen eta beti ikusten nintzen artzaiel, geldera berdina egiten: «Eman zuen artean artzaien bat txistuarien antzeko zerbait jotzen duanik ba el dago». Erantzuna ezezkoea jasotzen nuen. Apezei galdetza esi nintzan. Baita batek esan: «Santa Orosia—n, Basa-ko Yebra errian daukazu bat». Urutitokizkiez deitu nu a errira. Gure txistulariaren az-tarnak antxen genituen. Et-zan gutxi.

Lan guzti auen berri, Jon Oñativari eman nuen. Alai-tan zangoiti eta alkarrekin joan bear genula adierazi zi-dan. Garaia etorritako a arrebak bere berebil txika-rekin eraman ginduan.

Mendian oso gora ioi gi-fian, 1800 metrotaraino. Ant-xe zegoen Santa Orosiaren haseliza. Dantzariak zelaia-ren beste murrerara iritsi zi-rala jakin genuen. Aien bi-ile abiatu gifian. Ordu erdi

batean baita iritsi ere. An-dik zekarkiten Santa Orosia-ren burua. Dantzariak gosat-zen arkitu genituen. Olako batean gosadariai altxa ta errenkan jarri ziran. Gizon batzuek artu zuten bizka-rrean Santa Orosiaren burua ta orduantxa entzun genuen txistua. Arriturik oztuta be-zala gelditu gifian.

Ustekabean, orduarte ikusi ez genuena, antxe zegoen; gure txistularia.

Unetxo artan gure barre-nean zer gertatu zan ez ge-nezake esan. Zuzenean txis-tulariaren ondora joan gifian, baita elizarraño lagundu ere. Begiratu ta begiratu, entzun eta entzun, ametsik zoraga-riena baten ederragoa zan.

Meza ondorean, txistula-riaren bila joan gifian. Bere izena Francisco Villacampo Lanaspas 48 urte ditu ta Ba-sako Yebra errikoa da. Al-beita etxekoa. Txistua bene-tan zara, autsia dauka, ezpa-lakin egina, espadadrapoa ta sube larruakin inguratua, gu-rea baiñan txikiagoa da ta txirula baiño aundiagoa. Txis-tua bezala asten da ta bes-te aintseste zulo. Txistulari onek, doñuen ezditu ain ongi jotzen, beti ia gazte berdina, ez daki soforioik. Numbait egitazio txistularia gizon zar bat aspaldi i zan. Erri a txistularirik gabe gelditu zan Santa Orosia. Gaurko Txis-tulariaren atak doñuek oso on-do omen zekizkin eta al zuan bezala beste orren txistua ar-tuta berriz asmatu zuan jot-zen. Gaurko gizon guzte onek ez daki soforioik eta al duna jotzen du.

Ori dana ederra ba da, gau-zik arrigariena tuntuna dau-ka. Xiberoan tuntunak orre-lakoak zituzten, orain dala oso gutxi arte. Salterio ize-

nekin ezagutzen zuten. Ara-goiko txistulariak lepoan io-tua zebilkiri. Xiberoakoa bai-ñan aundiagoa da.

Santa Orosia'koak txistu-ari «silbo» deitzen zuan, ta salterioa «Chicoten». Kutxa-baten antza dauka, bi zulo ditu ta gelhean lokarriakot-sa txikia ateratzen du. Eke-rriakin artzen du txistua, bu-larrean dauka tuntuna ta es-kuakiakin makilla tuntuna jot-zeko.

Aragoi'ko txistularia ez ge-niuen pakean utzi. Azkenean txistuek nola jotzen zuan ikusteko, Oñativari eskuetan artu zuan ta asi zan jotzen. Lenengoak aurreakua. Bere-laxe, lasterka euskaldun bat agertu zitzaion, berez Urnie-tarra, Jose Ramon Exebe-rria Lasarte. Gizon arek zeu-kan poza. Urte ditu Santa

LATXAGA

Orosia'ra igotzen dala. Gerra garaian an ibilla zan. Alka-riketa polita bat ere egin genuen ango Aragoitar giza semeekin. Garbi asko esan genien, ango lurren izenak zer esan nai zuten guk ba genekila euskaldunak zirala-ko eta euskeraz ondo uler-ten zirala. Berak etzitzutela ulertzen, euskera galdu zu-telako. Aoa zabalik entzuten ginduzten. Azi ona erein ge-nuen.

Santa Orosia eliz inguruko giro zoragarria utzirik, ofez abiatu gifian. Ibili-aldi ura etzitzigun gaizki etorri. Ut-zitako tokian berebilla arkitu genuen. Mendi bide ura etzegen gure berebilitzat egifia. Olako batean, putzu-aren antza zeukan lokatza busti batean ondo sartu gifian eta andik ezin atera. Gu, la-guntzara atera ondorean, jur-pillak botatzen zuan zarte-koakin, goitik beaño zikindu gifian. Lokatzak, gure jant-ziak ondo apaindu zituan. Az-kenean, landrober bat agertu zan eta arekek gure zulo ar-tatik atera ginduan. Nunai agertzeko ondo apaindua k gelditu gifian. Orrela etze-goien ifunego jatebexa agert-zerik; batez ere Sabiñanigo edo makurrago Jaka'ra.

Ikargarriazko mendi aundi aietatik geldi ta poliki jex-terakoan, oartu gifian, obere-na, Basa'ko Yebra errian gel-ditza, izango zala. Or, bai, ondo ulerta zutela gertatuta-koa; bertako bazterrak ondo ezagutzen bai dituzte.

Sartu gifian errian, utsik zegoen. Gizeaseme geienak goien zeuden. Jatetxean ger-tatutakoa esan genuen. Bere-laxe ulertu zuten.

Bazkaltzerakoan adia a k o gizon bateri galdetu genion «zu gazte garaian dantzaria al zifian?». Pozez beterik baijez-koa eman zigun, baita dantza bakoitzaren doñua abest u-t-zen asi. Gizon arek, doñuek ondo ezagutzen zitula ta oso aberatsak zirala berealaxe oartu zan Jon Oñativari. Ma-netofolan goizean artutako eresariaren doñua entzun ge-nuen berriz. Bere poza ezin eukirik, irriparez asi zitza-i-dan Jon; «Ementzen dago egitazio doñua», esanez. Et-zegoen era bar galdua. Gizco atsegina arkitu genuen. Jan-gelak ba zeukan euskal kut-sua, bere ontzi ta erreditta zar aiekiri. Aulkiari Xiberoan bezela, «Cadiera» deit z en diote. Bazkaltzen bukatze-ra-koan Jon Oñativari erabaki garrantzitsuk artu zit u a n. Bat, txistulariari txistu berria berak daukan orren berdina egitea ta eramatea. Bertan ez bait dakite egiten. Beste-a berriz, Basa'ko Yebra erria urrango batean joatea, doñu zar guztia artzera ta andik dantzen doñua, ondo, zan be-zela osatzea ta paperetan idaztea, txistulariek zuten jo ditzaten.

LATXAGA

AXULAR SARIA

MUTIKO ITXUE

Bazen famili aberats bat. Bazuten mutiko bat itsue, beti triste egoten zena. Bere tristezia zuen bere familia etzela-kotz kristau ona. Allagatzen bazen pobre bat bere atera vigortzen zuten deus eman gabe.

Etorri ziren Eguerriko bestak eta nazimentua patu zuten, baño etzioten kasu gehiago egin. Mutiko itxue beti egoten zen nazimentuan ondutan. Bere anaiek erraten zioten etor-zeko baña etzen etortzen.

Egun batez konturetu ziren mutiko itxuak ikusten zuela Jesus Aurra ta erran zioten la zer ari zen ta berak kontes-tatu zuen:

—Nik ikusten dut zuek eztzuzena ikusten. Iduritzen zait Jesus Aurra irriz ai zaitela. Zuek eztzuzue ikusten al zertaz etzate kristau onak.

Denak ikillik gelditu ziren. Baramunean igandea zen ta famili guztia mezara gan zen.

Mutiko hari iduritu zelon bere etxeko Jesus Aurra ber-re-tu ta irri egiten ziola.

PEDRO MIGEL BARRENETXE. 10 urte

Alpilkueta-ko Eskolako

KONTUA

Atse otz batean bai omen zen gizon bat goseak zabillana atez ate. Gan zen bertze ate batera io zuten atea eta etzion iñork edeki. Gero io zuten bertze ate zar bat eta atea zitzaiton etxeko-andre bat soñeko autsiekin. Ikusi zue'arik gizon gose hura konbidatu zion «Notxeuena» eguna zele-bratzera. Gero etxeko-andre harek pasatu zion sukaldara eta gero pasatu zuelaik atera zuten afaria malara. Gero hasi zirelaik afaltzen lenbiziko lana egin zuten arrezatu. Afaltzen ai zirelaik galdia zion etxeko nausiari la zenbat ume zituen eta erran zion zapi zituela, eta gaztea guztian zauketela. Gero afaldute guan zela aurre ikustera eta gu-tzian aintzinean larri zela belauitiko. Eta gero etxeko-andria eta nausia solasian zaudelaik gizon gose hura bistetik guan zela hekek iakin gabe nor zen. Gero guan zirela ollarrin mezara eta langoikaren hitza entzuta etorri ziren etxera.


Sartu ziren sukeldera eta mal gañean arapatu zuten zerbait trapu batean inguratu. Ereki zuten trapu hura eta arapatu zuten aintzertze soñeko berriak, iateko eta zakuto txar batean hillebete bateko dirua. Sartu ziren neskatikoaren kuartora eta neskatiko hura arapatu zuten soñeko berriekin goatzean jarritte zagola. Eta tokilla batean inguratu zuten eta Beleneko etxol txar artara goan ziren aurtxo Jesus adoratzera.

Neskatiko harek musu ematean sendatu zen eta aurtxo Jesus utzi zion bere tokilla eta etorri ziren etxera haren tokillarik gabe.

Diru harekin etziren aberastu baño hobeki bizi ziren neskatiko hura sendatuta.

MARIA LUISA JAIMERENA 14 urte

Ziga-ko Eskolako



«Gaizo Auzapeza»

«Es fácil que pueda existir algún pigmeo que trate de achicar la obra de Azkue, pero no podrá lograr otra cosa que poner de manifiesto su insignificancia ante el co-loso».

(Enciclopedia de Añamendi, Vol. III, Literatura).

Egia da. Ordea, Añamendi —Enziklopedia, Azkue ez izaki! Bai zera! Eta, harako alegiaren irakaspene hura, ez ahaz: Etsai txikiarik ez da. Enziklopedia Añamendi'ren-tzat, bereginkia, egia da hori. J. Ignacio Goikotxeak jaunarentzat bai, behintzat.

Ikus, ikus, Literatura, Vol. III, ene eskuetan dut. Bero-beroa, labeatik atera berria. Aurkibide zerrandian, autore bi begiz jo ditut baitipat: Leon Leon eta, Moulier (Oxobi); hantienetarik bi. Lotsagarri da han ikusi autena.

«Auto enekin, irakurle. «GAIZO AUZAPEZA» izeneko L. LEON-en iskribuan, begira pasarte bat erdaraz nola esana dagoen. (Lehenik, euskarazkoa aldatu; atzetik, er-darazkoa).

«Auzapez izateko, ez dira ez baitaezpada begiak liburutetan gorrituak eta uspeiduak behar. Eta zirrirmaren egiteko IDAZLARIA etzena han etakit noiz arte ikastegietan eabilha?»

«Para ser alcalde, no hace falta por si acaso (forzosamente, behar luke izan) tener enojosidos y lastimados los ojos en la lectura. Y NO SE CUANTO TIEMPO HABER FRECUENTADO LA ESCUELA PARA GARABATEAR UN ESCRITO».

Ordea, L. LEON-en testuak, bigarenez, hau dakar: «Anartean IDAZLARIA ere dzarra dzarra ari auzapezarentzat mintzaldi baten moldatzen; mintzaldia erdaraz, s'il vous plait».

Beraz, bigarren IDAZLARIA, SECRETARIO baldin bada —eta Goikotxeak hala dama—; Lehenbizikoa ere, SECRETARIO izan behar. QUAE CUM ITA SINT, itzulpen zuzena, korrektoa, honela edo da: Y PARA GARABATEAR ESCRITOS, NO ESTABA ALI EL SECRETARIO PREPARADO EN LA ESCUELA. DESDE NO SE CUANTO TIEMPO?

Egun ikusten direnekin, garrantzia handi du ene zuzenketa honek. Bait da hor auzapezik, IDAZLARIARI idatz lana ez utzeagatik, bere kaskokoez, «tribuno» bidean, deus guti aitzinatu denik.

Ez, Goikotxeak: Ezjakinak, bere mugarriak baditu. Ez eman behar baino erraztasun gehiago. L. LEONEK bere idaztzen eman ez zutena, eman bide duzu zuk, itzulpenean.

Beste huts bat ere —galanta—, itzulkiuzan hortan bada. Jendeak ez bait dire L. LEON baitan, zure itzulpenak agertzen dituen bezain eskurakoi.

L. LEONEK hau dio: «Bertzeak bertze, artalde baten ongi erabiltzen dakienak ez otte du hogoi-ta hameka eta esku, herri baten buruzagi jartzeko? Uste nuke eta, be-rezik, Martotxuriri bezala jendeak bildotxak bezain etxialari».

(Muttin auzapezaz dihardu hemen; eskola guti bezain zuhurtzia handi zuten Muttin artzainak). Ikus orain, Goikotxeak'ren itzulpen optimista: «Por lo demás, quien sabe gobernar tan bien las ovejas, ¿no posee suficiente garantía para ser nombrado autoridad de un pueblo? Yo opinaria QUE LAS GENTES, Y SOBRE TODO EN MARTOTXURRI, SON DOILES COMO CORDEROS».

Itzulpen korrektoa, hau behar luke izan: por lo demás... para ser nombrado auto-ridad de un pueblo? Opinio que si; es decir, opinio que Muttin, excelente gobernador de su rebaño, lo puede ser igualmente de Martotxurri. Tanto más cuanto que en Martotxurri, las gentes son mansos corderos...

Haatik, jende guztia ez dire Martotxurrikoak bezalakoa, ez urrik emon bere. Mar-totxuriri bertan, «etziren ez denak bildotxak, heien artean, nonbelitik ere, otso bat bazen bekaizkeriak (envidia) urtua zeukana».

(Urren, «OXOBIZ» jardungo.)

Fremín IXURKO

Euskal Herrian Barna

Aurten Bizkaian «Bertsolarien Txapelketa» ospatzen ari da, Euskaltzaindiaren laguntzarekin. Txapelketa honer ari-ma eta bihotza Bilbo-ko seme zintzo den Alfontso Irigoyen jauna izan da eta honi eskerrak, urteoro Txapelketa hauek antola-tzen ez badira ere berebiziko oztipo batzuenkatik, bi urtean behin edo, iru urtetik bat behintzat ospatzen dira.

Azken aurreko Saioketa Durangon eta Azken Norghegi-ko-keta Nagusia Iragan berri den igandean (Azarcaren II'an) Leketien ospatuko ran.

Ni ez dakit zihurki Txapelketa honen berri zeatzak, nor gertatu zan Txapeldun eta Irabaztailea baño gauza bat ongi dakit eta la Irigoyen jaunari esker Bizkaian oraindik, eta urte askotarako izan dedila, Bertsolari zari indarr aemateari jarraitzen zaiola.

Bitartean zer gertatzen den hemen, gure Nafarroan? Hemen berriz ez dakit nun dan maraita baño nere oroiteak uts galanta egiten ez badit uste dut 1966 urtetik ezdala beste Nafarroako Bertsolarien Txapelketarik antolatu. Izan ere, 1966 urtean eta Iruñeko Gayerre paregabekoa (Goian Bego) eta ondorean Aldatz, Udabekoa; Uhtitzi, Aranokoa; Manuel Artotza-mena, Lesakakoa, Muttin Oreja Errazkingoa; Battista Ma-daraga Arantzakoa eta Muttin Goikotxeak Gorritikoa Jez dakit zel ordenatan geratu ziran).

Seigarren Txapelketa hartan Mikel Arotzamena Lesakako semea dena Irabaztailea gertatu zen. Bigarrena Goizuetako seme zen Andres Narbarte paregabekoa (Goian Bego) eta ondorean Aldatz, Udabekoa; Uhtitzi, Aranokoa; Manuel Artotza-mena, Lesakakoa, Muttin Oreja Errazkingoa; Battista Ma-daraga Arantzakoa eta Muttin Goikotxeak Gorritikoa Jez dakit zel ordenatan geratu ziran).

Non daude bertsolari hauek? Non bertsolari gazteak? Gure Diputazioak, Euskeraren Aldeko Sailaren bitartez eta gure Euskal zaindiaren laguntza eta itzalarekin, ez du berriz ere Nafarroako Bertsolarien Txapelketak antolatzen asiko?

Uste dut ordua dela berrito Bertsolaritza eta Bertsolarien Saiojetak antolatzen asteko zergatik gure bertsolariak euske-ri indarrak ausarki, eta bengoan ematen ongi dakite gure euskal herrietan.

la bada Diputazioa eta Euskaltzaindia; zuengan dago ber-tsolarien etorkizuna gure Nafarroan.

ooOoo

«AXULAR-en Hiztegia», liburu berria

JAKIN delako euskal Editorialak aurki «AXULAR-en Hize-gia. Euskara-Español-Francais, Español-Euskara. Français-Euska-ra» izeneko liburu berria argitaratuko du. Uste dut hemendik hila-betara edo, liburu iakingarri hau gure eskuetara eduko dela.

Liburu haundi, mardula izanen da, 700 orrialdekoa. Alta Luis Villasante izan da bere prestatzailea gazte talde baten laguntza baliotsuarekin. Liburu hontan AXULAR haundiaren hitzak, esanmoduak eta esakerak bilduak daude.

Lan neketsu eta izugarria izan da baño zorionez azke-nera iritxiko da euskaltzale guziei, euskal literatura zaleei Eguiberritako erregailu ederra bilakaturik.

Liburuaren izenburuak argi aditzera ematen du iru hiz-kuntzel begira modutua dagoela. Lehenbizikoa Euskeratik asita Gaztelarera eta Frantzesera aldatua; eta gero Gaztele-ratik Euskerara eta Frantzesetik Euskerara ere bai. Honek-ko moduan irakurle, ikasle guzietk lasaiki, eta erraztasun osoan liburuaren erabil dezakete.

Lan interesgarri honekin JAKIN euskal Eudorlaria «Jakin bide» deritzan Salla Asia da argilaratzen. Asiera hau galanta izan da alajaina.

JAKIN-en harpidedunentzat liburuaren sal-nehurria askoz merkeago izango zale, erdi-erdian noski. Dendetan 600 pezetan inguru salitzen baldin bada, uskuritontzat ordez 300 pezetalan seiduko, nustaika on eta egoki baten zalek presta-tua nahi baldin badute; enkoaderatua nahi baldi badute berriz ehun pezetatan gehiago garestitu bidaliko zale.

JAKIN, Alta Luis Villasante eta lagundu duen talderi nere goresmenak.

IKUSLF

BAXE - NAFARROA, LAPURDI eta ZIBERO - ko LITERATURA - Z. - (II)

Iparraldeko euskal idazleetaz asitako artikulorri jarraituko gatzale; oraitotatik, ira-gan mendeetako-otara joanez. Aipatu lugu-n SOUBELET Yomingo idazleak bere liburu (debekatua dagoena) PETAIN Marexale-en Aitzin—solasean dio: «...Aitama familia-koak, ezar barna gogoan, zuen haurreri behar duzuela eskuara irakatsi. Atxiki behar dugu gure mintzaira paregabekoa, atxiki ere gure ohidura guztiek». ...Bainan Euskal eskolaz ez-ta oroitzen, Erdal-eskolaz haatik, ele hauek sartzen (Ele gogotagarriak haatik, ele hauek sartzen).

«Sineste makurra da uste ukaitzea aski dela haurren eskolazte, haurren moldatzeko. Eskola ezda aski, behar du moldatzea lagun. Bihotza, ezdoa bere baitarik ongiri, ez eta ere gure nahi fernetasunerat eta gizontasun-erat (bere baitarik) Hortaratzekotz, behar du gizonak aski azkarrak moldatua izan, egiaz ko diziplinan».

«Ait-amek badakite, ezditakeela haurrik ontsa altxa, ez balimbada familian, larderia-kin (Agintekin) altxatua. Eta etxeko larderia-bera behar du kausitu Eskolan. Hala eta hala bakarrik, dira moldatzen gizonak eta jende azkarrak. Bigarren sineste makur bat, huntan litake, haurren moldatzea, munduan bakarrik behar balira bezala. Beretzat baka-rik bizitzien ikasten balinbazu haurrak, deus guti ateratu ko ta hartarik».

«...Lehenengo mendeetan, bi gizon arraza baziren; batzu laneko, bertzeak lanik gabe bizitzeko. Gixtino leagek du adiarazi, denek behar dutela langile izan, nehor ezdela lanik egin gabe egon behar». Hunaraino SOUBE-LET.

INAUTERIKO Maskaradak. Bestela, Asto-lastera edo Tobera Mustrak dituen artean, imprimatua dago Sabat HARRUGUIT garaz-ta batek argitaratu zutena, HIAUTIT Solas deitua, gatz eta piperra franko duena. Funtz gabe ko farregarrikari bat den-arren, aipatzea merezi du. Ongi ulertzeko, frantsesa ere jakin beharra da, euskaldun arronta baten frantsesa, bi izkerak nahastekatzin dituelako, grazia askorekin. Farregitako eta jokatze ko ona da, gordinkeri batzu tartean dituela.

DUVOISIN kapitaina. Idazle aundi aipatu horren euskara lerdene yastatzeko, zatitxo bat emanen dugu, BIBLIA ealnduaren euske-rapenatik artuz, Salomonen ERRAN ZAHAR

edo Proverbio-tatik, VII garren kapituloan dagoena:

«1.—Ene semea, idukatzu ene solasak. Begira zatzu ene erranak eta biziko zara; zaintzazu ene legea zure beginirria bezala.

4.—Zuhurtzari errozu; ene arrea zara, eta umotasuna deit-zazu zure adiskidea. 5.—Zaint zaitzan ematze arrotza ganik, eta bere solas-ak aiti egiten dituen atzea (arrotza) ganik; begia ezen, eman dut ene etxeko leioteik, xareten (Celosia, persiana) arteik. 7.—Ikus-ten ditut gazteak, begira nago gizon gazte burzoro bat, zeina iragaiten baita karrikatik, ematze haren etxe izkinetik, eta harateko bideaz baitaibila. 10.—Eta hara non liltxoaren apainduan ateratzen zayoen emateik, arima harapatzen jarria, guzi solas, zoko guztietan dabilan bat. 12.—Eta gizon gazte atzemarik, muskatuden du eta alkegabeko begitarte ba-kin, balakuka ari zala».

ZIBERO-ko Joseph MAISTER. Jesukristen IMITAZIONE liburu, zuberotar euskara ederrezz idatzit zuen MAISTER-ek 1757 urtean, eta Inchauspe kolongek bere mitazionean, haren urratsa urbelietk segitzin du. Huna Maister-en III gn. kapitulutik zatitxo bat:

«...Gizon perestu bakea maite dianaz. 1.—Zihaur egon zite lehenik bakian, eta gero besteak hartan ezarriren ahal dutuzu. Baki maite dian gizon batek haboro (geiago) houn-tarzun (ongia) egiten du, eziez jakitus (ja-kintsu) handi batek».

Bere pasioner enjogi (lotua) den gizonak hona ere gaizkiala (gaizkila) itzultzen du, eta gaizkia ehifera sinesten. Bakea maite dian gizon perestu baki, gaizak oro (gauzak) huniala (onera) utzultzen ditu. Bake honian denak, eztu ustekeria gaixtorik, ihurtzak (ñor-taz) hartzen; bena hanitx halako ustekeria eskarniatzen die, pausurik eta kontentamen-turik gabe dena, eta bera baki gabe da, eta besteak ezititu nahi pausian eizti (utzi).

Pierre DURIE, Donibane Lohizuneko pra-le izanak, 1715 inguruan, Bibliako ETORKIA (El Géneris) idatzit zuen euskaraz. Bai eta Gramatika bat, eta Euskara-latin-frantsesa IZ-TEGI baten zati bat, Dictionarium latino-can-traburum deitua.

Urte, lehenik kaputxinoa izan zen bere hirian, gero anglikano bihurtu eta Inglaterra joan. Han ezkondu zen eta seme bat baino geiago izan.

Bere obrak Oxford-eko Liburutegi batean daude, Profesore RHYSS galestarak estudiatu zituenak; eta gero THOMAS, Macclesfield titu-lodunak argitara emanak liburu edo batean.

A. APAT-ETXEBARNE

Euskaltzaindiaren Batzarra

Euskaltzaindiak, joan den urriko 26an, bere hileroko bat-zarra egin zuen Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jau-regian.

Horra bertan erabilitako gai nagusien kontua: Atsekabea eta dolumina agertu, AITA ANGEL GOENAGA euskaltzain laguntzaile eta irakasle argia hil egin delako.

Urriaren 6an Arrasaten, euskal irakasle titulua lortzeko egindako etsamenen berri eman zen. Titulu hori lortuko dutenak 42 izan dira.

EUSEBIO MARIA AZKUE-ren omenez azarcaren 11n Lekel-to-n Euskaltzaindiak egingo duen batzarren egitaraua onar-tu zen.

Durango eta Leketio-n, azaroaren 1 eta 11n ospatuko diren Bizkaiko Bertsolarien Txapelketetarako Epa-Mahaia jarri zen.

Berne Araudia berzitzatzeko jarririk den hatzordeak, goi-zean izandako bilaren kontu eman zuen.

Zortzi urte arteko eskola hiztegiaren 4,5 eta 6. zerrendak finkatutaz eman ziren, oharrak bialtzeko epea igaro denaz GREGOIRE EPPHRE euskaltzain laguntzaile izandatu be-riak bere estreina aldiko lana irakurri zuen. Gaia: «BIDA-RRAITARRA» eta «ARRANUA BORTIETAN» bi kantuetaz.

JACINTO FERNANDEZ SETIEN euskaltzain laguntzaileak beste txosten bat irakurri zuen. Gaia: «HAURRAREN MINT-ZAIRA BEREZIA ETA EUSKARA».

(Euskaltzaindiaren Prentsa Bulegoko Agiria)